

Enpresen rola



ANDONI MUJIKA
IRAKASLEA

Lehenengo apuntea: jarduera sozial, ekonomiko, kultural eta humanoan gehiago eragiteko beharra ez dago eztabaidan. Bigarrena: nahiko onartuta dago lanean lortzen dugun gogobetetze maila txiki samarra dela askorentzat.

Ba bi uste horietatik abiatuta, lerro hauen bidez mahai gainean jarri nahi da helburu horietara gerturatzeko aktore “berri” bat (enpresa) aktibatzea inportantea izan daitekeela. Baina horretarako, estereotipoen hesietatik ihes egin eta esparru sozial eta humanoaz arduratzen hasi behar dute erakunde ekonomikoek. Enpresa barrura zein kanpora begira, rol berria, integralagoa, bere gain hartu dezakete, eta horrela, eragile ekonomiko errentagarri izateaz gain, aktore sozial eta humano nagusietako bat bihur daitezke. Ezohikoa da erabat, baina pentsaezina bezain ahaltsua ere bai.

Gogora dezagun enpresen bereizgarri nagusia dirua irabaztea dela, eta gertatuko da, argi dago. Aldaketarik nahi ez duen enpresa askok horixe izaten jarraituko duela, jakina da hori. Hala ere, eta nolabait, esaten diharduguna posible dela frogatzeko, esan dezagun badirela enpresa-esperientzia bizi eta errealak, beren jatorrian apurtzaileak izan zirenak eremu honetan. Eta kontzepzio ekonomizista mehe hori gainditu egin zuten.

Adibidez, gizarte konpromisoan, enpresaren jabetzan edota parte-hartzean badaukagu hori erakusten. Izan ere, enpresaren helburua osoagoa eta humanoagoa izateak zentzu askoz handiagoa ematen dio proiektu ekonomiko huts bati eta, gainera, zilindrada handiko motore bat pizten da komunitatearen biziberritzeko.

Aurreiritzirik eta beldurrik gabe pentsatzen jartzen bagara, ohartuko gara enpresek zenbait arlo garatzeko beste edozein erakundek baino potentzial handiagoa izan dezaketela. Plataforma oso eraginkorrak izan litezke, ze beraien baitan pertsonak, bitartekoak, kudeaketa gaitasuna, denbora eta sentsibilitatea daude.

Aipa dezagun, baita ere, bide honetan estrategia nagusia zera litzatekeela: “Enpresa bera eraldatu inguruko eraldaketaren traktore izan dadin”. Beste era batera esanda, proposatzen diren helburu berri hauek enpresa barruan zein kanpoan garatzekoak liratekeela. Ze bi espazio horietan batera gertatuko da, halabeharrez, eraldaketa prozesua.

Amaitu baino lehen, goazen zehaztera labur, honezkero argi samar egongo den arren, lantokiko markora ekar ditzakegun zenbait arlo berri; esate baterako, lankidetzeta, barne-demokrazia, justizia soziala, hegoaldea, euskal kultura, ingurumena, ekintzailetasuna, hezkuntza. ●

Japoniar turistak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Ez duzu zehazki gogoratzen noizko kontua den; hau da, noiz ikasi zenuen *sozialki* japoniarrak oporretan joaten zirenean argazki makinak etengabe erabiltzen zituztela. Bikotekideari galdetu diozu zeure informazioa kontrastatu nahian, baina ez zarete ados jarri. Kasualitatez-edo, bi egun geroago, Valentzian, bertako falleri buruzko museo batean aspaldi ikusi gabeko eszena ikusi duzue biek: hiru turista japoniar makina banarekin argazkia egiten ari dira sua hartzeko prest dagoen fallari. 1991ko data du satiraz egindako maketak.

Garai batean ikasitako estereotipoak badu egiatik, estereotipoei egozten ohi zaien modura. Eta badu, halaber, estereotipoei egozten ez zaien baina maiz izaten duten burlatik. Izan ere, ohitura bitxia zen japoniar turistena: ikusten zuten oro argazkiz erregistratu beharra. Mekanismo kulturala ezaguna da, eta atemporal samarra: bestearen ohiturak ezberdinak direnean eta, are, ulertzen ez direnean, trufa egitea aukera erraza da.

Hamarkada gutxi batzuk joan dira –oraindik ez duzue data adostu–, eta orain geu bide gara argazkizale porrokatuak. Japoniar turistak. Bukatu dira irri-burlak. ●